

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2019ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2019ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da, baita 2019ko uztailaren 14an onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliiodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko abuztuaren 21ean hasi eta urriaren 21ean bukatuko da, egun biak barne.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Villaluenga, 2019ko uztailaren 15a

Lehendakaria

JUAN SALVADOR DOMINGUEZ LUIS